

{ datorrena } **Maite Ubiria**

Vel d'Hib, Aljeria... eta etorkizuneko damuak

raganaren gaineko berrazterketa ez da, ez hemen ez inon, ariketa erraza. Atzerako begiradak nekez hel-tzen dira garaiz min zaharrak baretzeko, eta, asko-tan, bestelako geroa eraikitzeke erreminta bilaka-tzeko gaitasunik ez dute, maleruski. Atzerako begiradak, gehienetan, selektiboak, partzialak, ka-pritxosoak, murrizak, hots, inperfektuak dira; «inoiz ez den ahanzi behar» horien bilduma, finean, norbanakoz osaturiko herriek zehazten dutelako, norabide finkoa bihurritu eta kontakizunen zirkuituak osatuz.

Hala eta guztiz ere, atzerako begiradak, beraien bertu-teak badituzte. Hartara, bestearengana hurbiltzeko biga-rren aukera erakusten dute, denboraren eta hitzaren ku-deaketa aproposa eginez gero. Probabilitateak horren alde jokatzeko du, bistan da.

«Inoiz ez da berandu» soil batekin erantzuteko prest dagoen jende kopurua handiagoa baita «ez horrek ez beste ezerk ez du balio» huts batekin gelditzeko prest dagoena baino. Gizartean bizi-tzera eramaten gaituen bul-kada berak aginduko digu, agian, paper trukaketa hipo-tesi gisa lantzeraz, pronosti-koaren aurkako hurbilketak bilatzeraz. Finean, era batera edo bestera iraganeko itzala argitzeko beharra xederik gizatiarrenetarikoa baita.

Josette Audin, 87 urteko emazte eta alargunarengana gerturatu da Frantziako presidentea. «Niri dagokit bar-kamena galdegitea», adierazi berri dio Emmanuel Ma-cronek 1957ko uztailean Frantziako Armadak atxilo har-tu, torturatu eta betiko desagerrarazi zuen Maurice Audin matematikari komunista eta Aljeriako indepen-dentziaren aldeko ekintzailearen alargunari.

Lehendabizikoz goi mailako agintari frantses batek urrats bat aurrerago egin du, heriotza zehatz baten gai-neko ardura hartzeaz gain, hura posible egin zuen siste-ma legala arbuatuz. Alegia, legea eskuetan hartuta apli-katu zen errepresioaren gaineko aitormena egin du

Macronek. Kasualitatea edo ez, espainiar Diputatuen Kongresuak Francisco Franco diktadorearen gorpuzkiak Erorien Bailaratik ateratzea baimentzen duen gobernu-dekretua baieztatu zuen egunean heldu zen Josettek inoiz gertatuko ez zela uste zuen keinua.

Aljeria estatu independente bilakatu aurretik zazpi ur-tez luzatu zen gerran hildako jende kopurua zehaztea ez da posible izan gaur arte. Beste hainbeste gertatu da Francoren matxinadak piztu zuen gatazka odoltsuare-kin. Bi gatazka mingarriotan milioi bat pertsonatik gora hil zirela diote hainbat bilanek. Frankismoaren gaineko atzerako begirada zer nekeza den ikusita, horretara mu-gatuko dut ezohiko alderaketa. Gaur-gaurkoz zaila diru-di-eta espainiar agintari baten ahotik «niri dagokit bar-

Gaur-gaurkoz zaila dirudi espainiar goi agintari baten ahotik entzutea «niri dagokit barkamena eskatzea», are zailagoa Estatuak aitortzea sistema legalak berak ahalbidetu zuela tortura aitortzea

kamena eskatzea» entzutea. Are zailagoa diktadurako arduradunak epaitzeko edo, gutxienez, diktadurako au-zitegien kondenak bertan behera uzteko pausua eman ez duen Estatuak aitortzea sistema legalak berak posible egin zuela –frankismo ondotik ere– tortura existitzea.

Jacques Chiracek juduen deportazioan frantziar agin-tariekin jokatu zuten papera salatzen, Val d'Hib-eko biktimei zuzenduta. Horren ondotik, Frantziak mende luze batez Aljerian jorratu zuen kolonizazioa bidegabe-tzat jo zuen François Hollandek. Banaketa ideologikoak gaintzen dituen atzerako begiradari bere ekarpena egin dio oraingoan Macronek. Geroan barkamena berri-ro eskatzeko beharra ez izateko gaur eta hemen zer egi-ten duen Errepublikak, hori beste kontu bat da... •